


Gizarte Zerbitzuetako Enpleguari buruzko  
txostenaren eguneratzea

2017ko Urtarrila

Innovación  
y Desarrollo  
Social

## Aurkibidea

1. Sarrera .....	3
2. Esparru orokorra eta eguneratze-prozesuaren ikuspuntua .....	4
3. Lan-baldintzen azterketa adin nagusiko pertsonen eremuan ...	9
3.1. Soldata-baldintzen bilakaera 2008-2015 .....	10
3.2. Soldata-baldintzen azterketa erreferentziazko beste sektore batzuekin alderatuta .....	14
3.3. Soldatakoak ez diren baldintzen azterketa alderatua .....	22
4. Emaitza nagusiak eta ondorioak .....	31



# 1.Sarrera

Txosten honen funtsezko helburua duela zazpi urte (2009) Cidec aholkularitzak Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat egindako Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Enpleguari buruzko Ikerketaren kapitulu nagusiak eguneratzea da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkargua 2015. urtean soldatapeko populazioaren lan-baldintzen azterketan erreparatzea da, hain justu, lurraldean hirugarren adineko egoitzetan zerbitzua ematen duten enpresetan lan egiten duten langileak.

Aurretik, 2. kapitulan, ikerketa jorratzeko erabilitako ikuspuntu metodologikoari buruzko aurretiko ohar zenbait azaltzen dira. Ohar horien xedea sektorean lan-baldintzak hobetu eta eskubideak sendotzeko garatu den prozesua azpimarratzea da, zehazki, azken urteotan Gipuzkoan soldatapeko populazioaren barneko kolektibo adierazgarri baten kasuan hitzarmenak desarautu eta desaktibatzeko joera gero eta handiagoarekin eta lan-baldintzak mantentzeko zailtasun gero eta handiagoekin alderatuta.

Azkenik, 4. kapitulan, eguneratze-prozesu honen ondorio nagusien laburpena egiten da.



## 2. Esparru orokorra eta eguneratze-prozesuaren ikuspuntua

Komeni da sektorearen lan-baldintzen eguneratzearekin lotuta ematen den informazioa azken 6 urteotan euskal ekonomia eta populazioaren barnean eman den egoera sozial eta ekonomiko bereziaren testuinguruan kokatzea.


Euskal Autonomia Erkidegoa ezin izan da Europar Batasuneko Estatu nagusiek eta Espainiako Estatuak berak 2010. urtetik izan duten atzeraldi bortitzetik at mantendu. Testuinguru horretan, txostenaren azken ediziotik (2009) EAEn barne-produktu gordina (BPGd) eta enplegua nabarmen jaitsi dira. Horrez gain, Euskadin lanean zegoen populazioaren zati baten kasuan lan-baldintzak txartu egin dira.

Atzeraldia eta enpresen jardueran beheraldia ezaugarri dituen testuinguru horretan, populazio aktiboko zati handi baten lan-baldintzetan eragin bereziki negatiboa nabaritu da.

Modu horretan, 2008. urtetik euskal ekonomiak 90.000 enplegu baino gehiago galdu ditu BJA (biztanleria jardueraren arabera) inkestako (Eustat) datuen arabera, izan ere, 2008. urtean 990.000 pertsona inguru zeuden lanean eta 2015. urtean 900.000 baino gutxiago. Gipuzkoaren kasuan, landun populazioak 324.600 pertsonatik (2008) 300.000 ingurura (2015) egin du behera. Langabezia-tasak ere nabarmen egin du gora Gipuzkoan, hurrengo grafikoan erakusten denez.




### Langabezia-tasa eta enplegua Gipuzkoan 2007-2015\*



\*Eustat erakundeak enplegu-tasa kalkulatzeko metodología aldatu du 2015. urtean eta 2014ko datuak berrikusi ditu.  
Iturria: B.J.A. Eustat

Atzeraldi ekonomikoa eta enplegu-galera ezaugarri izan dituen epealdian, enplegua sortzeko dinamikak Gipuzkoako gizarte zerbitzuetako sektorean joera kontra ziklikoa erakutsi du, eta Lurraldeak sektoreko zerbitzuak hobetzeko egindako apustuak ez da salbuetsita geratu. Horrela, 2010. urtetik aurrera sektorean Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsona kopuruak % 43 egin du gora, 14.472 pertsonatik 2015. uztailen erregistratutako 21.130 pertsonetara.

### Gipuzkoan Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsona kopurua Gizarte Zerbitzuekin lotutako jardueren arabera 2010-2015



Fuente: Ministerio de Empleo y Seguridad Social

Horrez gain, urte hauetan enplegua mantentzea lortu duen populazioaren proportzio adierazgarri batek erosahalmena galdu du eta bere lan-baldintzak txarragoak dira.

Sektore publikoaren kasuan, 2010eko aurrekontu-krisiaren esparruan soldatetan izandako murriztapenak nabarmendu behar dira, urte hartan soldatak % 7 jaistea eragin zutenak (aparteko ordainsaria atzeratu eta soldata % 1 eta % 5 bitartean jaistea). Halaber, 2010. urtetik langile publikoen soldata izoztuta egon da ia.

Sektore pribatuaren kasuan, EAEn negozioazio kolektiboaren egituraren azterketak, Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) datuen arabera, lan arloko segurtasunik eza eta prekarietaterako joera handiagoa erakusten du. Horrela, 2014. urtean sektore pribatuko hiru langiletik batek hitzarmen eguneratua zuen, eta 2010. urtean portzentaje hori % 80 ingurukoa zen (% 78,5)<sup>1</sup>.


Gainera, estatistika-iturriek landun populazio osoaren soldataren bilakaera egiazkoa nekez jasotzen badute ere, azken urteotan lan-merkatuaren errealitateak laneko prekarietate handiagoa izan du ezaugarritzat (soldatapeko populazioaren behin-behinekotasun gehiago, langileen borondatez kontrako lanaldi partzialeko lan gehiago, etab.).

Ikergaiarekin lotutako jardueraren (zerbitzuen sektorea) esparruan soldatak izandako bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da INE institutuaren Soldata Estatistikaren inguruko azken informazio erabilgarria 2013. urtearekin lotzen dela. Informazio horretatik ondorioztatzen denez, EAEn zerbitzuen sektorean urteko batez besteko soldata gordina % 4,5 inguru igo zen soilik 2008-2013 bitartean, hots, urtean % 1 baino gutxiago, batez beste 25.331 euro gordinetan finkatu arte.

<sup>1</sup> Ez dago eskuragarri LHK kontseiluaren txosten eguneratua, 2015. urterako informazio hori emango duena. Informazio hori 2016. urtearen erdialdera eskuratu ahal izango da, erakunde honek egindako kontsultaren arabera.

2014. urteari eta 2015. urteari buruzko informazio eguneratua eskuratu nahi bada, aztergaiari dagokion erreferentzia-iturri gertukoena INE institutuaren lan-kostuei buruzko estatistika da<sup>2</sup>. Estatistika horretan jasotzen denez, 2009. urteko hirugarren hiruhilekoaren eta 2015. urteko hirugarren hiruhilekoaren artean EAEn sektoreko lan-kostua % 1,7 igo da sei urte horietan. Horrek egiazko soldata nabarmen jaitsi dela adierazten du, izan ere, epealdi horretan KPI indizea % 8,4 igo da.


**Lan-kostuaren bilakaera EAEn sektorearen arabera. 2009ko hirugarren hiruhilekoa vs 2015eko hirugarren hiruhilekoa**



Iturria; Lan-kostuen Inkesta. INE

Halaber, lan-gatazken eta ekonomia-krisiaren ondorioz enplegu-erregulazioko espedienteak nabarmen areagotu dira EAE osoan, bereziki 2013. urtera arte. Urte horretatik aurrera nolabaiteko hobekuntza nabari da. Horrela, 2013-2015 bitartean espediente kopurua % 75 baino gehiago murriztu da EAEn.

**EAEn 2007-2015 bitartean Euskal Administrazioari jakinarazitako EEE kopurua**



Iturria: LHK

<sup>2</sup> Adierazi behar da lan-kostuan ez dela soldata-kostua soilik barneratzen, beste lan-kostu batzuk ere sartzen dira, esate baterako, kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainak eta bestelakoak.

Txosten honetan gauzatutako azterketa- eta eguneratze-prozesuak 2009. urteko ikuspuntu bera mantendu du, ikergai den sektore-eremuko sektoreko baldintzak Gipuzkoan adierazgarriak diren beste hitzarmen batzuekin alderatzeko ahalegina eginez.

Edozein kasutan, negoziazio kolektiboan ezegonkortasun handiagoak eragin jakin bat du jarraian aurkezten den azterketa-prozesuan. Horrela, adibide batera, sektoreko hitzarmen garrantzitsu batzuk, Metalaren (Siderurgia) kasuan esate baterako, indargabetu egin dira duela bost urte baino gehiagotik hona, eta sektorean berriro negoziatzeko gauzatutako prozesuak ez dira, orain arte, arrakastatsuak izan. Halaber, 2015. urtean Merkataritza orokorra sektoreko hitzarmenak indarrean egoteari utzi zion, txosten honetan alderaketa egiteko erreferente modura erabiltzen dena Gipuzkoan enpleguari dagokionez presentzia handia baitu.

Testuinguru horretan, ikergai diren sektore-eremuetako langileen lan-baldintzetan gauzatutako hobekuntza materialetatik harago, nabarmentzekoa da sinatu diren eta egun indarrean diren dagozkion sektoreko hitzarmenen ondorioz lortutako eskubideen egonkortasun eta sendotasuna, goran deskribatutako lan-testuinguru bereziki korapilatsu batean.





### 3. Lan-baldintzen azterketa adin nagusiko pertsonen eremuan


Atal honetan Sektoreko Hitzarmen Kolektiboetatik abiatuta zehaztutako lan-baldintzekin lotutako informazioa eguneratzen da, 2009. urtean aurkeztutako txostenaren egitura oinarritzat hartuz.

GFAk berak helarazitako datuetatik abiatuz, eta datuok gutxi gorabeherakoak direla eta urterokoak ez direla ulertuta, Udalhitz hitzarmenari lotutako langileen garrantzi erlatiboa, 2014. urtean Gipuzkoan sektore horretan lanean ziren pertsona guztiekiko, % 8 ingurukoa dela ohartarazten da.

Bestalde, beren jarduna sektore horretan berezko hitzarmena duten enpresetan burutzen duten langileak % 14,2 dira, sektorean lan egiten duten langile guztiekiko.

Edozein kasutan, sektoreko langile gehienak (lau langiletik 3) beren jarduna sektore pribatuko enpresetan burutzen duten langileak dira, hala zuzenean (berezko hitzarmenik ez duten enpresatan), nola azpikontratazioko eredu bidez.

Gizarte Zerbitzuetan enplegatutako langileen banaketa, hitzarmen aplikagarriaren arabera



Iturria: Berez eratua, GFAk emandako informaziotik abiatuta

### 3.1.- Soldata-baldintzen bilakaera 2008-2015

Sektoreko lan-baldintzak ikuspuntu konparatibo batekin aztertze aldera, sektore honetako hitzarmen nagusiak hartu dira: *Gipuzkoako Pertsona Adinduen Egoitzen Hitzarmen Kolektiboa*; *Jose Matia Fundazioaren Hitzarmen Kolektiboa eta Udalhitz Hitzarmena (tokiko euskal erakundeak)*. Azken kasu horretan, nabarmendu behar da hitzarmen hau alderaketetarako mantentzea erabaki dela, 2009. urtearen ere aztertu zelako. Haatik, egiaz, tokiko erakundeen akordioak dira 2010. urtetik aurrera funtzionarioen eta tokiko erakunde publikoetako langileen soldata-baldintzak ezartzen dituztenak urteko aurrekontuen bidez.

Gainera, azterketa irakurketa konparatua egitea ahalbidetzen duten beste lau hitzarmenekin osatu da:

- *Bizkaiko Hirugarren Adineko Egoitza Pribatuaren Sektoreko Hitzarmen Kolektiboa* (Gipuzkoarentzat erreferentzia modura baliagarri izan daitekeena, Lurralde Historikoa izateagatik);
- *Osakidetza* (mendeko pertsonen arretarako nolabaiteko antzekotasuna duten zerbitzuetarako Administrazioak aplikatzen duen hitzarmena izateagatik). Jardunari dagokionez nolabaiteko gertutasuna izateagatik erreferente modura planteatzen den arren, kontuan izan behar da Osakidetza kontratazio publikoko baldintzen arabera arautzen dela (oposizio bidezko hautaketa-prozesuak, merituen balioespena, etab.), aztertutako sektorean aplikatzen ez direnak eta, horrenbestez, ez da zuzenean alderagarria;
- *Gipuzkoako Industria siderometalurgikoaren (metala) Hitzarmen Kolektiboa* (Gipuzkoako garrantzitsuenetako bat izateagatik eta baldintzetan erreferente izateagatik, nahiz eta, adierazi bezala, hitzarmen honen egiazko eraginkortasuna 2015. urtean zalantzazkoa den, gizarte-eragileen arteko negoziazioaren zain, auzitegietan ezarri denez);
- *Merkataritza Orokorra Sektoreko Hitzarmen Kolektiboa* (lan-baldintza eskasagoak dituzten beste sektore batzuk ordezkatzuz).

2009. urtean bezalaxe, soldataren inguruko konparaketa lau kategorian nagusietako<sup>3</sup> hileko soldata gordina, osagarririk gabe, hartu da erreferentzia gisa: goi teknikaria, erdi-mailako teknikaria; laguntzaile-geriatriako zaintzailea eta kualifikaziorik gabeko mendeko langilea.

Eskuragarri dagoen informazioarekin antzeko kategorien arteko konparaketak<sup>4</sup> baino egin ezin badira ere, aipagarri da "laguntzaile-geriatriako zaintzailea" kategorian sartzen direla jarduera horretan lan egiten duten pertsona gehienak.

<sup>3</sup> Kategorien artean baliokidetasun osoa ez dagoenez, dokumentu osoan "hurbilketak" egin direla hartu behar da kontuan eta, zenbaitetan, dagozkion hitzarmenetan erabiltzen ez diren hitzak baliatzen direla, aztertutakoaren ulermena errazte aldera.

<sup>4</sup> Hirugarren adineko egoitzei buruz eskuragarri dauden datuen arabera, langile guztien % 85 inguru kategorian horretara atxikiko da.

Argitalpen honetan lau kategoria hauetako soldatetan izandako bilakaerari erreparatzen zaio 2008. urteko adin nagusiko pertsonentzako egoitzaren hitzarmenaren erreferentziatik abiatuz hauei dagokienez:

- 2009-2012 bitartean indarrean egondako hitzarmenaren esparruan onartutako soldata-etaulak.
- **2013/2014 epealdirako eta 2015. urteko hitzarmenarekin lotuta GFAk egindako proposamena, epealdi honetan soldataren gaineko erreferentzia modura erabili dena.**

### Soldataren bilakaera 2009-2012 hitzarmenaren indarraldian

Hurrengo koadroan ikus daitekeen moduan, lau kategoriatako soldatak portzentaje berean, % 14,7an, igo dira 2008-2012 bitartean. Horrek urtean % 3,7ko erritmoa dakar, Gipuzkoan epealdi horretako KPI indizetik gora nabarmen<sup>5</sup>.

**Adin nagusiko pertsonentzako sektoreko soldata-baldintzak 2008-2012 bitartean. Lau kategoria nagusietako hileko oinarritzko soldata**

	2008-2012 HITZARMENAK					Portzentajezko igoera
	2008	2009	2010	2011	2012	2008-2012
<b>Goi teknikaria</b>	1.896	1.951	2.010	2.090	2.174	%14,7 (urtean %3,7)
<b>Erdi-mailako teknikaria</b>	1.785	1.837	1.892	1.968	2.047	%14,7
<b>Laguntzailea/geriatriko zaintzailea</b>	1.205	1.240	1.277	1.328	1.381	%14,7
<b>Mendeko langileak eta langile kualifikatuak</b>	1.076	1.107	1.140	1.186	1.233	%14,7

*Berez eraturia, hitzarmen kolektiboetatik ateratako informazioetik abiatuta*





Hurrengo laburpen-grafikoan erakusten den moduan, 2012. urterako indarreko hitzarmenak sektorean kategoria profesionaleko ezarritako igoeretan goranzko joera orekatua ikusten da kategoria ezberdinen artean. Horrenbestez, 2012. urtean, hots, hitzarmena indarrean egondako azken urtean, kategoriaren araberako hileko soldata gordinak zenbateko hauetara iritsi arte igo ziren:

- 2.174 euro goi-teknikarien kasuan.
- 2.047 euro erdi-mailako teknikarien kasuan.
- 1.381 euro laguntzaileen kasuan.
- 1.233 euro mendeko langileen eta ez kualifikatuen kasuan.

:

<sup>5</sup> INE institutuaren arabera, Gipuzkoako KPI indizea % 0,8koa izan zen 2009an, % 2,6ra igo zen 2010ean, % 2,5 2011n eta % 2,6 2012an.

**Adin nagusiko pertsonentzako egoitzen sektoreko soldata-baldintzak 2008-2012 bitartean.  
Kategoria nagusietako hileko oinarrizko soldata**



*Iturria: Berez eratua, hitzarmen kolektiboetatik ateratako informazioetik abiatuta*

**Soldataren bilakaera 2013-2014 eta 2015-2016 epealditarako hitzarmen-proposamenen esparruan**

2013. urtetik aurrera, sektorean ez dago gizarte-eragileek sinatutako hitzarmen eguneratu formalik, nahiz eta itxuraz **2013-2014 eta 2015-2016 epealditarako bi hitzarmen-proposamenak** erreferente orokor modura erabili diren sektoreko enpresa eta langileen artean.

Horregatik, jarraian 2013. eta 2014. urteetarako soldata-baldintzen bilakaera jasotzen da 2013-2014 hitzarmen-proposamen honetan adierazten denaren arabera, eta baita 2015. urteari begira ere, **dagokion proposamenetik** abiatuta.



**Adin nagusiko pertsonentzako egoitzen sektoreko soldata-baldintzak 2012-2015 bitartean. Lau kategoria nagusietako hileko oinarritzko soldata**

	2012-2014 epealdirako hitzarmen-proposamena eta 2015. Urterako proposamena				Portzentajezko igoera
	2012	2013 (2012. urteko KPI %2,6)	2014 (2013 urteko KPI %0,6)	2015 (%+2,0)	2012-2015
<b>Goi teknikaria</b>	2.174	2.231	2.244	2.289	%5,2 (urteko %1,7)
<b>Erdi-mailako teknikaria</b>	2.047	2.100	2.113	2.155	%5,2
<b>Laguntzailea/geriatriako zaintzailea</b>	1.381	1.417	1.425	1.454	%5,2
<b>Mendeko langileak eta langile kualifikatuak</b>	1.233	1.265	1.273	1.298	%5,2


*Iturria: Berez eratu, hitzarmen kolektiboetatik ateratako informaziotik abiatuta*

**2013. eta 2014. urteetarako erreferentziak** lan-kategoria ezberdinetan soldata igotzeko joera mantentzea dakar, nahiz eta urteko erritmo apalago batekin, bakoitzaren aurreko urteko KPI indizearekin lotutako igoera bat ezarriz. Horrela, erreferentzia modura hartu zuten enpresetan bi urte hauetan % 3,2ko igoera metatua egon da (urtero batez beste % 1,6).

Bilakaerari erreparatuz, 2015. eta 2016. urteei so, **hitzarmen-proposamenak** soldata-baldintza horiek sendotzea dakar eta, are, hobekuntza nabarmena, ekonomiari eta aurrekontuei dagokienez testuinguru zail batean. Modu horretan, 2015. eta 2016. urteetarako proposamen honen arabera sektoreko kategoriatan soldatak % +2 igoko dira (2015) eta KPI indizea % 2 baino gehiago (2016, azken urte horri begira, gutxienez, % 2ko igoera bermatuz balizko KPI indize negatibo baten aurrean).

Horrela, 2015. urtean, 2015-2016 epealdirako hitzarmen-proposamenean soldataren igoera % 2an kokatzen da. Horrek, 2012. urtearekiko % 5,2ko igoera metatua dakar, epealdi horretarako Gipuzkoako KPI indizearen gaintik nabarmen.

**KPI indizearen bilakaera Gipuzkoan (urteko igoera tasa aurreko urtearekin alderatuta) 2007-2015**



*Iturria: INE*

### 3.2.- Soldata-baldintzen azterketa erreferentziako beste sektore batzuekin alderatuta

Jarraian aurkezten den azterketaren aurretik, 2009. urtean langileen lan-baldintzen inguruko azterketa egiterakoan, 2015. urtearekin alderatuta, gertatutako instituzio aldetiko aldaketa nabarmena azpimarratu behar da. Modu horretan, gobernu zentralaren lan-erreformaren (2012) aurretik, hitzarmen kolektiboa ez zen bertan behera uzten aurrekoa ordezkatzeko zuen hitzarmen berri bat egon arte (ultra jarduera deritzona).

Haatik, lan-erreforma burutu zenetik eta, bereziki, azken urteetan, ekonomia-krisiaren eragin handiagoarekin bat etorritik, sektoreko jarduera negoziatzailean geldialdi indartsua gertatu zen. Gauzak horrela, **2013-2014 eta 2015-2016 epealdietarako hitzarmen-proposamenek segurtasun eta berme handiagoa sortu dute langileen eskubideei dagokienez, landun populazioko zati adierazgarri batean hautemandako zalantzazko egoera batean.**

2015. urteko egoera horren ondorioz, hurrengo atal eta grafikoetan aurkeztutako azterketan hitzarmenen indarraldiko azken urtearekin lotutako lan-baldintzak mantendu egin dira, esate baterako, Gipuzkoako Metalaren kasuan (eremu pribatuan lan-baldintza hobekiak erakusten dituen erreferentziako hitzarmen modura) edo Merkataritza orokorra sektorearen kasuan (horren baldintza onak ez dituen hirugarren mailako hitzarmen modura). Dena den, 2015. urtean sektoreko hitzarmena jadanik ez zegoen indarrean.

Aztertutako gainerako sektoreetan, kapitulu honetan 2015. urtean indarrean ziren sektoreko hitzarmenak falta direla ikus daiteke 2009. urtean zegoen egoerarekin alderatuz, izan ere, orduan industrian nahiz metalean, merkataritzan edo euskal Administrazio Publikoan bertan indarraldi betean ziren hitzarmenak zeuden.

Gipuzkoako hirugarren adineko egoitzen sektorean **gertatutako** argitasun horrez gain, soldata-mailen azterketa zerbitzuen sektorearekin lotutako beste sektoreko hitzarmen batzuekin alderatuz, ikertutako **lau kategoriatan egoitzen sektorearen egoera mesedegarria ikusten da**, aurrerago deskribatuko den moduan. Soilik sektore publikoko langileen (Udalhitz eta Osakidetza) baldintzen kasuan hautematen dira ikertutako sektorearen azpitiko soldata-mailak. Metalaren sektorearekin egindako alderaketak sektore horren aldeko egoera erakusten du ikertutako kategoria gehienetan, baina ez guztietan.

## a.-Soldataren igoera-tasen azterketa alderatua 2008-2015

Hurbilketa gisa nabarmendu daitekeenez, bilakaerari buruz egindako azterketa alderatuak **sektorean soldata-mailek izandako bilakaerak igoera-tasa handiena erakusten duela** berresten da **jarraian aztertzen diren sektore guztiekin alderatuta.**

Modu horretan, **egoitzen sektorean soldata-mailei dagokienez metatutako igoera, 2008. urtetik 2015. urtera, % 20,7koa da aztertutako lau kategoriatan, eta gainerako sektoretan igoera-tasa askoz ere apalagoa da ia kategoria guztietan. Horrenbestez, epealdi horretan bere egoera erlatiboak hobera egin du nabarmen.**

Aztertutako gainerako hitzarmenetan soldaten bilakaera motelagoa da 2008-2015 bitartean. Horien artean bi hitzarmen nabarmentzen dira, baina egoitzen kasuan hautemandako igoeratik urrun:


- *Matia Fundazioaren hitzarmena:* Bertan igoera ezberdinak gertatu dira kategoriaren arabera 2008-2015 bitartean. Edozein kasutan, epealdi horretan lau kategoriatan hitzarmenaren hileko soldata metatuaren batez besteko igoera % 13,1koa da, egoitzen hitzarmenari dagokiona baino portzentajezko zazpi puntu gutxiago. Hitzarmenaren arabera, hileko 12 ordainketak eta 731 euroko bi paga linealek osatzen zuten 2014. urterako ordainsaria langile guztientzat. Aitzitik, 2015. urteari begira urteko ordainsaria nabarmen igotzen zen, izan ere, urteko 14 pagak oso-osorik ordaindu ziren.
- *Bizkaiko hirugarren adineko egoitzen sektoreko hitzarmenean* % +15,8ko igoera-tasak ikusten dira 2008-2015 bitartean (tasa metatuak). Igoera horiek adierazgarriak izan arren, askoz ere apalagoak dira Gipuzkoako egoitzen hitzarmenean ikusten direnekin alderatuta.

Kategoria bakoitzeko azterketa sakonagoan aurreratuz, **goi teknikarien** kasuan ikus daitekeenez, Udalhitz, Matia Fundazioa, Metala eta Osakidetzako hitzarmenak dira ordainsari handiena erakusten dutenak kategoria honen kasuan.



Modu horretan, epealdi horretan adin nagusiko pertsonentzako egoitzetako hitzarmenean soldata-baldintzak hobetu arren, goi teknikariaren kategoriako ordainsaria aipatutako hitzarmenetan baino zertxobait baxuagoa da, nahiz eta Bizkaiko hirugarren adineko hitzarmenari dagokion soldata gainditzen duen erruz (% +24,7), hirugarren mailako beste sektore batzuekin, merkataritza kasu, alderatuz erakusten duen ezberdintasun handia ez aipatzearren.

**Hitzarmen ezberdinetan jasotako goi teknikarien hileko oinarrizko soldaten arteko alderaketa. 2008-2015**



1. iturria: Berez eratua, hitzarmen kolektiboetatik ateratako informaziotik abiatuta  
 1. oharra. Gipuzkoa metala: Ingeniari, Arkitekto eta Lizentziadunekin kategorია baliokidea  
 2. oharra. Gipuzkoa merkataritza: Goi mailako tituludunarekin kategorია baliokidea. 2015. urtean ez zegoen indarreko hitzarmenik. Horrenbestez, 2011-2014 bitarteko hitzarmena zen lan-baldintzak finkatzen zituena.

Goi teknikariko kategorია honetan 2008-2015 bitartean soldataren igoera-tasetarako hurbilketarekin egoitzen hitzarmena aztertutako sektoreen buruan kokatzen da, zazpi urte horietan % 20,7ko igoera metatuta. Modu horretan, 2008-2015 bitartean metatutako igoera-tasen batez bestekoa bikoizten du aztertutako sektore guztiak kontuan hartuz, batez besteko hori % 10 ingurukoa baita.






**Erdi-mailako teknikarien** kategorian, Gipuzkoako adin nagusiko pertsonentzako egoitzen sektoreko hitzarmen-proposamenaren soldata-baldintzen egoera bereziki mesedegarria hautematen da, Matia Fundazioaren hitzarmenean agertzen denarekin alderatuz, eta Bizkaiko sektoreko hitzarmenean adierazitako soldata ere gaindituz, edo beste sektore batzuetan islatutakoa, Metalarena kasu. Horrela, kategoria hori da ezberdintasun gehien ageri dituen Bizkaiko hitzarmenarekin alderatutako azterketan. Horrela, 2015. urtean Gipuzkoako hitzarmen-proposamenaren soldatak % 33 batean gainditzen du Bizkaiko hitzarmenean adierazitakoa.

Horrez gain, sektore honetan erdi-mailako teknikariaren ordainsaria Osakidetza hitzarmenean agertzen denaren antzekoa da, erizaintza postua aintzat hartuz gero (OLT/EUD), hitzarmen horri dagozkion 2015eko ordainsari eguneratuen taulen arabera<sup>6</sup>.

Erdi-mailako teknikari kategoria honetan 2008-2015 bitarteko soldataren igoera-tasei erreparatuz, egoitzen hitzarmena aztertutako sektoreen buruan kokatzen da, zazpi urte horietan % 20,7ko igoera metatuta. Aztertutako sektore guztiak aintzat hartuta, metatutako igoera-tasen batez bestekoa % 11,4koa da.

**Hitzarmen ezberdinetan jasotako erdi-mailako teknikarien hileko oinarrizko soldaten arteko alderaketa. 2008-2015**



*Iturria: Berez eraturia, hitzarmen kolektiboetatik ateratako informaziotik abiatuta*  
 1. oharra. Gipuzkoa metala: categoría equivalente a Graduados/as Sociales  
 2. oharra. Gipuzkoa merkataritza: Administrazioiko buruarekin kategoria baliokidea


<sup>6</sup> Aitzitik, Osakidetza hitzarmenaren ordainsarien taula hauetan agertzen den erdi-mailako teknikari lanpostu orokorrekarekin alderatzen bada, egoitzen hitzarmenean proposatutako ordainsaria hilean 195 euro handiagoa da.

Jakina denez, egoitza sektoreko kategoría nagusia **gerontologiako laguntzaile edo zaintzailearena** da. Gipuzkoarako hitzarmen-proposamenean planteatzen den ordainsaria Bizkaiko hitzarmenean finkatutakoa baino handiagoa da (+134 euro) eta Matia Fundazioko hitzarmenean kategoría horretarako ezartzen denaren oso antzekoa (- 8 euro). Horrela, portzentajeei so, Gipuzkoako hitzarmen-proposamenean agertzen den soldata Bizkaiko hitzarmenean adierazten dena % 10ean gainditzen duela ondoriozta daiteke.

Edonola ere, Gipuzkoako hitzarmen-proposamenean Gipuzkoako hirugarren adineko egoitzen sektorerako finkatzen den ordainsaria eremu publikoko hitzarmenetan planteatzen diren ordainsariak baino baxuagoa da. Horrela, Osakidetza hitzarmenaren kasuan ordainsari hori 249 euro handiagoa da (erizaintza laguntzaile **espezializatuaren** postua kontuan hartzen bada<sup>7</sup>), eta Udalhitz hitzarmenaren kasuan 254 euro handiagoa da Gipuzkoako egoitzen hitzarmenari dagokion soldata baino.

Azpimarratu behar da geriatriko laguntzaile postu honetan baldintzak modu adierazgarrian hobetu direla. Horrela, 2006-2008 bitartean, sektorean sinatutako hitzarmenetan ordainsaria 400 euroko igotzea eta 100 lanordu baino gehiago murriztea lortu zen. Horrenbestez, Estatuan sektore horretan zegoen edozein hitzarmen baino askoz ere maila handiagoan kokatzen zen. Hobekuntza horiek sendotu egin dira 2008. urtetik gaurdainoko bilakaeran, eta 7 urte hauetan metatutako soldata-igoera % 20tik gorakoa da, epealdi horretako inflazioaren oso gainetik.

**Hitzarmen ezberdinetan jasotako geriatriko laguntzailearen (edo antzekoaren) hileko oinarrizko soldaten arteko alderaketa. 2008-2015**




Iturria: Berez eratua, hitzarmen kolektiboetatik ateratako informaziotik abiatuta.  
 1. oharra. Gipuzkoa metala: 2. mailako Profesional Siderurgikoarekin kategoría baliokidea.  
 2. oharra. Gipuzkoa merkataritza: Saltzaile nagusiarekin kategoría baliokidea

<sup>7</sup> Kategoría parekiazina, adibide gisa sartua, aurreko txostenaren eguneratzea mantentzeko

Aurreko kategoriatan gertatu bezala, kategoria honetan 2008-2015 bitarteko soldataren igoera-tasen azterketa alderatuari erreparatuz, egoitzen hitzarmena aztertutako sektoreen buruan kokatzen da, sei urte horietan % 20,7ko igoera metatuta. Aztertutako sektore guztiak aintzat hartuta, metatutako igoera-tasen batez bestekoa % 11,6koa da.

Sektorean ordezkari gehien duen kategoria denez, era berean, errealitatetik gertuago dagoen soldata baten erreferentzia barneratzen da, langileen 2 hiru urteko antzintasun neurtua aintzat hartuta.

**Hitzarmen ezberdinetan jasotako geriatriko laguntzailearen (edo antzekoaren) hileko oinarrizko soldaten arteko alderaketa, bi hiru urteko<sup>8</sup> antzintasuna barneratuz. 2015**




*Iturria: Berez eratu, hitzarmen kolektiboetatik ateratako informazioetik abiatuta.  
 1. oharra. Gipuzkoa metala: 2. mailako Profesional Siderurgikoarekin kategoria baliokidea  
 2. oharra. Gipuzkoa merkataritza: Saltzaile nagusiarekin kategoria baliokidea*

**Mendeko langilearen** kategoriari dagokionez, Gipuzkoako adin nagusiko pertsonentzako egoitzen hitzarmen-proposameneko ordainsariak Bizkaiko hirugarren adineko hitzarmenean adierazitakoa gainditzen du (+70 euro), nahiz eta laguntzailearen kategorian ikusitakoarekin alderatuz portzentajea apalagoa izan eta Matia Fundazioaren hitzarmenean ezarritakoaren antzekoa izan (+2 euro).

Sektore publikoko hitzarmenekin alderatuz, mendeko profil honetako ordainsaria apalagoa da. Horrela, alderik nabarmenena Udalhitzeko hitzarmenarekin hautematen da, eta Osakidetzaren kasuan ere ordainsaria apalagoa da (-89 euro).

<sup>8</sup> Metalaren kasuan bosturtekoak aintzatesten direnez, egokitzapen bat burutu da (bosturteko bat eta hurrengoaren urte 1).

**Hitzarmen ezberdinetan mendeko langileentzat eta kualifikaziorik gabeko langileentzat jasotako hileko oinarrizko soldataren alderaketa 2008-2015**



*Iturria: Berez eraturia, hitzarmen kolektiboetatik ateratako informazioetik abiatuta*  
 1. oharra. Gipuzkoa metala: Peoi arruntarekin eta espezialistarekin kategorია baliokidea  
 2. oharra. Gipuzkoa merkataritza: Laguntzailearekin kategorία baliokidea

Azkenik, mendeko langileen kategoriako ordainsariaren igoera-mailaren bilakaerari buruzko ikerketak erakusten duenez, egoitzen hitzarmenean ematen da soldata-igoera metatu handiena aztertutako sektore guztietan (% +20,7), aztertutako sektore guztiak aintzat hartuz batez besteko igoera % 11,9koa delarik.

**b- Soldaten arteko ezberdintasunei buruzko azterketa alderatua kategoriaren arabera**

Lau lan-kategoriaren arteko oreka proportzionalaren azterketari dagokionez (portzentajezko ezberdintasunak kategoriaren arabera), 2008. urtean identifikatutako joerak berresten dira. Modu horretan, lau kategoría horietako soldata-mailaren zeharkako irakurketak berresten duenez, 2009. urtean hautematen zen moduan, Osakidetzako hitzarmena da oreka gehien erakusten duena soldaten arteko ezberdintasunetan kategoriaren arabera.

Adin nagusiko pertsonen sektoreko hitzarmenaren kasuan, soldataren igoera-tasa homogeneoa izan denez 2008. urtetik aurrera kategoría ezberdinetan, 2009. urteko txostenean jasotzen ziren emaitzak mantentzen direla ondorioztatzen da.

Gipuzkoako adin nagusiko pertsonentzako egoitzen hitzarmena da, soldata-maila erlatiboari dagokionez, aurrez aipatutako erdi-mailako teknikariaren kategoriari garrantzia gehiago ematen jarraitzen duena (kategoría horretako soldatak % 48an gainditzen du aurreko kategoría, laguntzailearena), Udalhitz hitzarmenean egiten den moduan.

Aitzitik, Matia Fundazioko hitzarmenaren kasuan, erdi-mailako teknikariaren kategoria horrek 2008. urtean laguntzaile kategoriarekiko zuen aldea murriztu egiten da. Hala, 2008. urtean erdi-mailako teknikariaren soldatak % 49an gainditzen zuen laguntzailearen soldata, baina 2015. urtean portzentaje hori murriztu eta % 38an kokatzen da aldea<sup>9</sup>.

**Kategoria nagusien oinarrizko soldata eta aurreko mailarekiko igoera-portzentajea, adin nagusiko pertsonentzako egoitzen sektoreko erreferentziako hitzarmenen arabera**

**Egoera 2008an**

	Mendeko langileak/langile kualifikatu gabeak	Laguntzailea/geriatriako zaintzailea		Erdi-mailako teknikaria		Goi teknikaria	
	Hileko oinarrizko soldata	Hileko oinarrizko soldata	Igoera %	Hileko oinarrizko soldata	Igoera %	Hileko oinarrizko soldata	Igoera %
<b>Gipuzkoako adineko pertsonentzako egoitza</b>	1.076,00	1.205,00	%12	1.785,00	%48	1.896,00	%6
<b>Jose Matia Calvo Fundazioa</b>	1.095,04	1.248,07	%14	1.860,19	%49	2.382,28	%28
<b>Udalhitz</b>	1.352,78	1.712,10	%27	2.764,78	%61	3.098,91	%12
<b>Osakidetza</b>	1.349,36	1.663,86	%23	1.972,50	%19	2.456,32	%25
<b>Bizkaiko 3. adinekoak</b>	1.059,91	1.139,74	%8	1.395,95	%22	1.583,85	%13

**IEgoera 2015ean**

	Mendeko langileak/langile kualifikatu gabeak	Laguntzailea/geriatriako zaintzailea		Erdi-mailako teknikaria		Goi teknikaria	
	Hileko oinarrizko soldata	Hileko oinarrizko soldata	Igoera %	Hileko oinarrizko soldata	Igoera %	Hileko oinarrizko soldata	Igoera %
<b>Gipuzkoako adineko pertsonentzako egoitza</b>	1.298	1.454	%12,0	2.155	%48,2	2.289	%6,2
<b>Jose Matia Calvo Fundazioa</b>	1.296	1.462	%12,8	2.016	%37,9	2.582	%28,1
<b>Udalhitz*</b>	1.356	1.708	%25,9	2.731	%59,9	3.030	%11,0
<b>Osakidetza</b>	1.387	1.703	%22,8	2.165	%27,1	2.470	%14,1
<b>Bizkaiko 3. adinekoak</b>	1.228	1.303	%6,1	1.617	%24,1	1.835	%13,5
<b>Metalgintza</b>	1.499	1.576	%5,1	2.084	%32,2	2.563	%22,9
<b>Merkataritza</b>	816	867	%6,2	937	%8,1	1.139	%21,5

*Iturria: Berez eratu, hitzarmen kolektiboetatik ateratako informaziotik abiatuta*

*\*Oharra: Hainbat udal aurrekontu eta Udaletan soldatarekin lotuta hartutako akordioak aztertu ostean, 2009. urteko Udalhitz hitzarmeneko oinarrizko ordainsarrietan % 1,8ko igoera orokorra aplikatzea erabaki da, hitzarmen horretan bertan data horretatik aurrera adierazten denaren arabera. Horrez gain, kategoriaren arabera, hurrenez hurren, % 1,5eko, % 2ko, % 3ko eta % 4ko murrizketa aplikatzea erabaki da Eudel erakundeak 2010. urtean martxoaren 20ko 8/2010 Errege Dekretuari erantzuteko argitaratu zuen akordio-proposamenean jasotzen denaren arabera.*

<sup>9</sup> Aparteko aipamena eskatzen du Osakidetzan kategoria horren aintzatespenak, izan ere, erakunde horren kasuan ordainsarien taulatan soldatarik dagoenez alde handiak ageri dira, lanpostu funtzional bakoitzeko 60 soldata-maila baino gehiagorekin. Horrela, 2009. urtean bezala, osasun-laguntzaile teknikoaren maila erreferentzia modura hartuta, soldata-maila Gipuzkoako egoitzen hitzarmenaren ezarritakoren antzekoa dela ikus daiteke. Aitzitik, azterketa Osakidetza erdi-mailako teknikariaren postu funtzionalera eramaten bada zehazki, soldata-maila askoz ere apalagoa da Gipuzkoako egoitzen hitzarmenaren ezarritakoa baino (hilean 230 euro gordin baino gehixeago).


### 3.3.- Soldatakoak ez diren baldintzen azterketa alderatua

2009. urtean egindako lanetan metatutako esperientziak **egoitza sektorean soldatakoak ez diren** gainerako **baldintzen** azterketa alderatua egitearen garrantzia erakusten du.

Alderaketa egiteko teknikari laguntzaile edo zaintzailearen kategoria hartu da erreferentzia modura. Hauek izan dira enpleguaren kalitatea balioesteko aztertutako adierazleak: urteko lanaldia, gaueko lanaren plusa, jaiegun eta igandetako plusa, aparteko orduak, aparteko ordainsariak, antzintasuna, prestazio pasiboen babes-sistema osagarria, atsedanak, oporraldiak, norberaren eginkizunetarako baimen egunak, soldata bermatua ohiko gaixotasunaren ondoriozko Ezintasun Iragankor egoeran eta soldata-igoerak.

- **Urteko lanaldiari** dagokionez, Gipuzkoako adin nagusiko pertsonentzako egoitzen hitzarmenak bere egoera egiaz mesedegarria mantentzen du, Administrazioak urtean lan egindako orduen pareko izanik (berezitasun batekin, hots, atsedan-denborak ez dira benetako lan-denbora modura hartzen). Are, sektore publikoarekin alderatuz egoera erlatiboa ere hobetu egin da, Osakidetzan lanaldia luzatu egin baitzen. Lanaldi hau bereziki murrizta da Lan Harremanen Kontseiluaren Estatistikekin alderatzen bada, izan ere, estatistika horretan urtean 1.701 ordutan finkatzen da 2014. urtean Gipuzkoan indarrean ziren hitzarmenetan adostutako lanaldia (2015. urterako ez dago informaziorik).

Lanaldiaren alderaketa




Iturria: Berez eratua, hitzarmen kolektiboetatik ateratako informaziotik abiatuta.

- Orduko ordainsariari dagokionez, egoitzen hitzarmenean jasotzen den lanaldi murriztagoak (hitzarmen gehienekin alderatuta), berez, 3.1. kapituluan soldata gordinak aztertzean eskainitakoa baino egoera are hobea erakusten du orduko soldataren kasuan. Hurrengo grafikoari erreparatuz, kategoriaren arabera azterketa bat eginez zera ondorioztatzen da:

- Mendeko langileen kasuan, 2015. urtean egoitzen hitzarmenean jasotzen den orduko soldata (11,4 euro orduko) soilik Udalhitz hitzarmenak, Osakidetzakoak eta Metalaren hitzarmenak gainditzen dute.
- Laguntzaileen kasuan (12,8 euro orduko) mendekoaren profilaren antzeko egoera ikusten da. Horrela, kategoria horretako orduko ordainsaria sektore publikoko aipatu hitzarmenetan jasotakoek gainditzen dute soilik, Metalaren hitzarmenaren pareko egoera (13,0 euro orduko) erakutsiz, eta Bizkaian erregistratutakoa baino nabarmen handiagoa izanik (10,9 euro orduko).
- Erdi-mailako teknikariaren kategoriaren kasuan orduko soldata-maila bereziki handia da. Horrela, 2015. urtean Gipuzkoako egoitza sektorean 19,0 euroko orduko soldata finkatzen da, Osakidetzak duen mailaren oso antzekoa (18,8 euro orduko), Udalhitz hitzarmenean finkatzen den orduko soldata baino gainditzen ez duelarik.
- Aitzitik, sektoreko goi teknikariaren kategoriak orduko duen ordainsariari so (20 euro orduko), aztertutako gainerako kategoriak baino egoera erlatibo apur bat apalagoa ageri du. Modu horretan, orduko soldata hirugarren mailako (Merkataritza kasu) hitzarmenetan jasotzen den orduko soldata edo Bizkaiko hirugarren adineko orduko soldata baino askoz ere handiagoa bada ere, beste hitzarmen batzuetan finkatutakoa baino zertxobait apalagoa da, esate baterako, Metalarena (21,1 euro), Osakidetzarena (21,4 euro orduko) edo Matia Fundazioarena (22,4 euro orduko) baino apalagoa.

**Orduko soldataren azterketa alderatua aztertutako hitzarmen nagusietan 20115**



turria: Berez eraturia, hitzarmen kolektiboetatik ateratako informazioetik abiatuta

- Ekonomiarekin lotutako beste alderdi batzuen kasuan, esate baterako, **gaueko lanaren plusen kasuan eta jaiegunetan lan egiteari dagokion kasuan, nahiz antzinasunagatiko ordainsariaren kasuan, sektorean baldintzak apur bat apalagoak dira gainerako hitzarmenetan jasotzen direnekin alderatuta.**
- Kriaren eragina ere nabaritu da beste zenbait alderditan, esate baterako, aparteko orduen negoziazioan edo prestazioen sistema osagarrietarako kontribuzioaren negoziatioan.
  - Modu horretan, aztertutako ia hitzarmen guztietan **aparteko orduak** kendu direla erregistratzen da eta, edozein kasutan, arrazoi justifikatuak edo ezinbesteko kasuak direla medio mantentzen direnean, ez dira ordaintzen, eta ordu libreekin ordezkatzeko dira.
  - Halaber, **babes-sistema osagarrietarako edo prestazio pasiboetarako (BGAE)** kontribuzioak kendu egin dira Udalhitz eta Osakidetzako hitzarmenetan. Metalaren kasuan, Geroaren aldeko enpresa-ekarpena zalantzazkoa da 2011. urtean ezetsitako hitzarmenarekin lotutako testuinguruan. Horrenbestez, enpresentzat ekarpen hori ez da derrigorrezkoa.
- Egun libre eta oporraldiekin lotutako beste alderdi batzuei dagokienez, egoera 2009. urtean zegoenaren parekoa da, horrenbestez:
  - **Oporraldiei** dagokienez, sektore publikoa salbuetsita, egoera arruntena hilabete oso bat izatea da (30 egun natural eta 26 lanegun), larunbatak lanegun modura barneratzen baitira.
  - **Norberaren eginkizunetarako baimen egunei dagokienez**, ez da ohikoa gainerako sektoreetan. Horrenbestez, Herri Administrazioaren hitzarmenetan eta Matia Fundazioaren hitzarmenean soilik jasotzen da.





**ENPLEGUAREN KALITATEARI DAGOZKION GAINERAKO ADIERAZLEAK 2015**

	URTEA	GIPUZKOAKO ADIN NAGUSIKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	JOSE MATIA CALVO FUNDAZIOA	UDALHITZ	OSAKIDETZA	BIZKAIKO HIRUGARREN ADINA	GIPUZKOAKO INDUSTRIA SIDEROMETALURGI KOA (azken hitzarmena 2011)	MERKATARITZA OROKORRA
<b>Urteko lanaldia (benetako orduak)</b>	<b>2008</b>	1.592	1.638	1.592	1.592	1.691	1697	1.766
	<b>2015</b>	Mantendu egiten da	1617	Mantendu egiten da	1.614,5	1.698 ordu <sup>10</sup>	Mantendu egiten da	1.762
<b>Gaueko lanaren plusa</b>	<b>2008</b>	2,3276 euro ordukoa	29,85 euro lanaldiko	Igoera edo konpentsazioa denboran %25aren baliokidea ordu arruntaren gainean	27,31 (2)	Orduaren balioaren gaitetik %25ean igotako ordainsari espezifikoa	----	----
	<b>2015</b>	2,58 euro orduko	Gaueko lanaldiaren zenbatekoa: —E.U.D.: 40,52 euro lanaldiko. — Laguntzaileak: 32,36 euro lanaldiko	Mantendu egiten da	2,87 euro orduko	Mantendu egiten da	----	----
<b>Jaiegun eta igandetako plusa</b>	<b>2008</b>	2,1438 ordua	46,37 euro lanaldiko	Igoera edo konpentsazioa denboran %50aren baliokidea ordu arruntaren gainean	41,06 lanaldiko (3)	----	----	----
	<b>2015</b>	30 euro igande edo jaiegun bakoitzeko kategoria guztietan  Dagoeneko 30 euroko zenbateko horren gaitetiko plusa jasotzen duten erakunde edo enpresatan KPI indizearen % +2 igoera aplikatuko da (gutxieneko bermea %2koa eta gehienezkoa %3,5koa izanik)	Zenbatekoa lanaldiko: 50,26 euro lanaldiko	Mantendu egiten da	6,16 euro orduko	----	----	----

<sup>10</sup> Horietatik 1.683 ohiko jarduerarako izango dira eta 15 etengabeko prestakuntzarako. Hitzarmen hau indarrean sartu arte 1.683 ordutik beherako lanaldia zuten langileen kasuan lanaldi hori mantenduko da, betiere, 1592 orduko gutxieneko oinarri batekin.

	URTEA	GIPUZKOAKO ADIN NAGUSIKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	JOSE MATIA CALVO FUNDAZIOA	UDALHITZ	OSAKIDETZA	BIZKAIKO HIRUGARREN ADINA	GIPUZKOAKO INDUSTRIA SIDEROMETALURGIK OA (azken hitzarmena 2011)	MERKATARITZA OROKORRA
Aparteko orduak	2008	Kenduta	Kenduta iraunkor eta ohiko izaera dutenen kasuan. Egitekotan atsedean konpentsatzailea aplikatuta beteko dira/	Atsedean-denborarekin konpentsatuko dira. Laneguna bada, aparteko ordu bakoitza lanaldi bateko ordubete eta hiru laurdenekin konpentsatuko da. Jaieguna edo gaueko lanaldia bada, bi ordurekin.	Laguntzaileen guardiak 7,81 € laneguneko ordua eta 8,84 € jaiegunetako ordua	Kenduta iraunkor eta ohiko izaera dutenen kasuan. Atsedean-orduekin konpentsatuko da, lan egindako ordu bakoitzeko 1,75 ordurekin	Hasiara batean, kenduta. Beharrezkoak direnean, ordu horiek denbora librearekin konpentsatzen dira, ordubete eta 20 minutu lan egindako ordu bakoitzeko. Ezohiko kasuan ordu horiek ordaintzekoak badira, % 40 erantsiko zaio ordu arruntaren zenbatekoari.	---
	2015	Mantendu egiten da	Zuzendaritzak eta langileak alde aurretik hala adostuta, aparteko orduak egin ahal izango dira, indarrezko legeriarekin bat etorritik. Enpresa derrigorturik egongo da izaera iraunkor eta ohikoa duten eta, horrenbestez, uneko egoerekin edo urgentzia nabariarekin bat ez datozen, aparteko orduak ez egitera. Halako orduak eginez gero, atsedean konpentsatzailez beteko dira.	----	Presentzia fisikoa eskatzen duten Guardiei dagokienez: 14,63 € asteleheneetik ostiralera 16,09 € jaiegunetako ordua  Gainerako ordu gehigarriak ordu eta erdirekin konpentsatuko dira lan egindako ordu bakoitzeko, betiere, lanaldi osagarri izaera ez badute edo premia larri edo ustekabekoen ondorioz egiten ez badira.	Kenduta jarraitzen dute.	Kenduta jarraitzen dute eta baldintza berdinekin ezohiko kasuetarako	

	URTEA	GIPUZKOAKO ADIN NAGUSIKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	JOSE MATIA CALVO FUNDAZIOA	UDALHITZ	OSAKIDETZA	BIZKAIKO HIRUGARREN ADINA	GIPUZKOAKO INDUSTRIA SIDEROMETALUR GIKOA (azken hitzarmena 2011)	MERKATARITZA OROKORRA
<b>Aparteko ordainsariak</b>	<b>2008</b>	2	2	2	2	2	2	2+1 mozkin-ordainketa/
	<b>2015</b>	2	2	2	2	2	2	2+1 mozkin-ordainketa
<b>Antzinasuna</b>	<b>2008</b>	18,03 euro hileko hirurteko bakoitzeko	42,07 euro hirurteko bakoitzeko/	Hirurtekoa: 17,52 + kapitala Antzinasuna: 15,99. Guztira. 33,51 € hilean	33,49 € hilean hirurteko bakoitzeko	18,03 euro hilean hirurteko bakoitzeko/	Bosturtekoak. % 5 oinarrizko soldataren gainetik	Konstantziagatiko indemnizazioa (soilik enpresan, gutxienez, 25 urteko antzinasuna duten langileentzat bertatik beren borondatez irtetea)
	<b>2015</b>	22 euro hilean hirurteko bakoitzeko	Mantendu egiten da	2010ean indarrean zen hirurteko bakoitzeko zenbatekoari (34,9 euro hipotesian) maiatzaren 20ko Legegintzako 8/2010 Errege Dekretuaren arabera % 1,84 aplikatzea, 11. maila bati lotutako beherapenari dagokiona Eudel erakundearen proposamenaren arabera, hirurteko bakoitzeko 34,29 euroko zenbatekoa ematen duena	35,11€ hilean hirurteko bakoitzeko	20 euro hirurteko bakoitzeko	Mantendu egiten da	2014an bezalaxe, baina ez da plus bat, baizik eta kargu-uzteagatiko indemnizazio bat, gehienez, urtebeteko soldataren baliokide

	URTEA	GIPUZKOAKO ADIN NAGUSIKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	JOSE MATIA CALVO FUNDAZIOA	UDALHITZ	OSAKIDETZA	BIZKAIKO HIRUGARREN ADINA	GIPUZKOAKO INDUSTRIA SIDEROMETALUR GIKOA (azken hitzarmena 2011)	MERKATARITZA OROKORRA
Prestazio pasiboen babes-sistema osagarria	2008	---	----	Lanpostu bakoitzari dagokion sailkapen-multzoren arabera, ekarpen ekonomikoa urtean 14 hilekotan, non instituzioak titular bakoitzak egindako ekarpenaren zenbatekoa berdintzen duen.	Mantendu egiten da	--	Ekarpenak GEROA-BGAEra: Kotizazio-oinarriaren % 4,30 (% 2,15eko ekarpenak langileak eta % 2,15eko ekarpena enpresak)	Enpresa eta langileek GEROA BGAE erakundera egindako ekarpena Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko langilearen kotizazio-oinarriaren % 0,20koa izango da (% 0,10 langileak jartzekoa eta beste % 0,10 enpresak jartzekoa)
	2015	---	---	Maiatzaren 20ko Legegintzako 8/2010 Dekretua indarrean jartzen den unetik aurrera bertan behera geratzen da instituzioaren ekarpena modu orokorrean EAEko tokiko erakundeetan 2014. urtera arte. Zenbait kasutan, 2015. urtean berreskuratu egin da ekarpena.	Bertan behera geratu da OSAKIDETZAREN ekarpen instituzionala BGAE erakundera	Mantendu egiten da	2010. eta 2011. urteetan GEROA-BGAE erakunderako ekarpenak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorreko langilearen Kotizazio-oinarriaren % 4,60an mantendu ziren, kontingentzia arruntei dagokiena (portzentaje horretatik % 2,3 langileak jartzekoa izango da eta beste % 2,3 enpresak jartzekoa). Adegik, 2014. urtera arte enpresa-ekarpena mantentzea gomendatu die enpresei.	Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko langilearen kotizazio-oinarriaren % 0,40koa (% 0,20 langileak jartzekoa eta beste % 0,20 enpresak jartzekoa).

	URTEA	GIPUZKOAKO ADIN NAGUSIKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	JOSE MATIA CALVO FUNDAZIOA	UDALHITZ	OSAKIDETZA	BIZKAIKO HIRUGARREN ADINA	GIPUZKOAKO INDUSTRIA SIDEROMETALUR GIKOA (azken hitzarmena 2011)	MERKATARITZA OROKORRA
<b>Atsedanak</b>	2008	Lanaldi jarraitua: 20 minutuko atsedena. Benetako lan-denbora modura hartzen ez dena	----	Benetako denboraren kontzeptuaren barmean lanaldi arruntean sartzen direla ulertuko da araututako etenaldi modura erabilitako orduak, joan-etorriak, eta segurtasun-edo osasun-arauetatik edo lanaren antolaketatik bertatik eratorritako beste zenbait etenaldi	Sei orduetik gorako lanaldi jarraitua: 15 minutuko atsedena, benetako lan modura zenbatua	Lanaldi jarraitua: 20 minutuko atsedena, benetako lan modura zenbatua	Lanaldi jarraitua: 15 minutuko atsedena, benetako lan modura zenbatuko dena	-----
	2015	Hitzarmen-proposamenean 20 minutuko atsedena mantentzen da egunean bost orduetik gorako lanaldia burutzen duten langileentzat. 2015. urteari begira adierazten da 20 minutu horietatik 5 minutu (% 25) ordaindu egingo direla eta, horrenbestez, benetako lan modura hartuko dira.	----	Modu berean mantentzen da	Lanaldi arrunta ez da 12 ordu jarraituetatik gorakoa izango, gutxienez 12 orduko atsedenerako eskubidea izanik lanaldien artean eta 24 ordukoa astean. Atsedena ez da benetako lan modura zenbatzen	Lanaldi jarraitua: 20 minutuko atsedena, benetako lan modura zenbatua	15 minutuko atsedena mantentzen da	
<b>Oporraldiak</b>	2008	31 egun natural edo 26 lanegun	30 egun natural edo 26 lanegun (larunbatak lanegun modura barneratuta)	35 lanegun jarraitu (astelehenetik ostiralera) + 11 egun natural Aste Santuan eta 9 egun natural Gabonetan, bi kasuotan jarraituak	28 lanegun, larunbatak lanegun modura barneratuta	31 egun natural/	30 egun natural/	30 egun natural edo 26 lanegun, larunbata edo, hala badagokio, astelehena lanegun modura barneratuta
	2015	Modu berean mantentzen da	Modu berean mantentzen da	Modu berean mantentzen da	Modu berean mantentzen da	Modu berean mantentzen da	Modu berean mantentzen da	Modu berean mantentzen da
<b>Norberaren eginkizunetarako baimen egunak</b>	2008	4 egun/lanaldi natural/	4 egun, urteko ordu kopurutik kengarriak, edo haren baliokidea ordutan Gehi berreskura daitezkeen bi egun	6 lanegun	----	----	----	----
	2015	Modu berean mantentzen da/	4 egun natural ordainduak, eta gehienez 34 lanordu, gaez lan egiten duten langile finkoen kasuan izan ezik, horientzat gehienez 40 lanordu ezartzen baita	Modu berean mantentzen da	----	----	----	----

	URTEA	GIPUZKOAKO ADIN NAGUSIKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	JOSE MATIA CALVO FUNDAZIOA	UDALHITZ	OSAKIDETZA	BIZKAIKO HIRUGARREN ADINA	GIPUZKOAKO INDUSTRIA SIDEROMETALUR GIKOA (azken hitzarmena 2011)	MERKATARITZA OROKORRA
<b>Soldata bermatua ohiko gaixotasunaren ondoriozko Ezintasun Iragankor egoeran</b>	2008	Soldataren % 100, bajako lehen hogeita bat egunetan Hitzarmen-proposamenaren arabera, lehen bajaran zehar baja hartu aurretiko hilabeteko oinarri arautzailearen % 100 jasotzeko eskubidea, eta % 80 jasotzekoa bigarren bajaran	Urteko lehen bajaran eta lehen egunetik hileko soldataren % 100 ordainduko da dagokion antzintasuna gehituta eta, hala badagokio, plus pertsonal historikoa ere gehituta. /	Soldataren % 100 lehen 6 hilabetetan eta une horretatik aurrera % 80	Ordainsarien % 100 dagokion epealdirako, Gizarte Segurantzaren aldetiko prestazioa eraginkorra deneko gehienezko denborara arte	Kontzeptu guztiengatik jasotako soldataren % 85, bajaren aurretiko hileko garraioaren plusa salbuetsita, urtean gehienez 10 eguneko tope batekin.	----	Hitzarmenean adierazten den soldataren % 100, gehienez urtebeteko epean.
	2015	Modu berean mantentzen da	Ohiko gaixotasunaren ondoriozko Ezintasun Iragankor kasuetan, urteko lehen bajaran prestazioak hileko soldataren % 100ean ordainduko dira lehen egunetik, horri antzintasuna gehituta eta, hala badagokio, plus pertsonal historikoa ere gehituta.	Modu berean mantentzen da	Lehen hiru egunetan % 50, laugarren egunetik hogeigarrenera % 75 eta hogeigarren egunetik aurrera % 100	1. Lehen egunetik hogeita batgarren egunera, biak barne, Hitzarmen honetako 30. artikuluko A atalean, 1.1 eta 1.2.1 puntuetan, bameratzen diren kalifikazio-soldataren eta soldata-osagarri pertsonalen % 85era arte, hau da, oinarrizko soldata edo hitzarmenean adierazitakoa, pizgarririk ez izatearen ondoriozko konpentsazioa, antzintasuna (Lotura) eta beste osagarri pertsonal batzuk. 2. Bajako hogeita bigarren egunetik aurrera, aurretik adierazitakoaren % 100.	----	Modu berean mantentzen da
<b>Soldata-igoerak 2015. urtetik aurrera</b>	2008							
	2015	Hitzarmen-proposamenean 2016. urterako kontzeptu guztietarako 2015. urteko KPI indizearen gehi % 2 baten soldata-igoera planteatzen da, gutxienezko bermea % 2koa eta gehienezkoa % 3,5ekoa izanik.		Maiatzaren 20ko Legegintzako 8/2010 Errege Dekretua aplikatzeak 2011. urterako ordainsariak % 0,98 (5. maila) eta % 5 (30. maila) bitartean murriztea ekarri zuen. Orduetik Estatuko Herri Administrazioetako langileen soldatak izoztuta daude.	EAEko Aurrekontu Orokorren arabera, soldatak ez igotzeko edo izozteko egungo politika orokorrean.	Ez da jasotzen, izan ere, hitzarmena 2015eko abenduaren 31ra arte izango da indarrean	2012. urtetik hitzarmena indargabetu egin da formalki eta baldintzak enpresa mailan negoziatzen dira.	2015. urtetik hitzarmena indargabetu egin da

## 4. Emaitza nagusiak eta ondorioak

### *1. Testuingurua: lan-baldintzen bilakaera mesedegarria atzeraldi betean*

Lan-baldintzen argazkiak, 2008-2015 bitartean, garrantzi berezia hartzen du Atzeraldi Handiaren eta EAE nahiz Gipuzkoan lan-egoerak, oro har, izandako txartzearen testuinguruan. Horrela, txosten honetako 2. atalean laburbildu nahi izan den moduan:

- landun populazioa nabarmen murriztu da Gipuzkoan: enplegu-tasa portzentajezko 5 puntu murriztu da 2008. urtetik, lurraldearen populazio aktiboaren % 50ekoa izateraino.
- Langabezia-tasa boskoiztu egin da azken urteotan. Hala, 2008. urtean Gipuzkoako lurraldean enplegu-maila erabatekoa zen eta egoera horrek bilakaera negatiboa izan du, % 13 inguruko langabezia-tasara iritsi arte.
- Enplegua mantentzea lortu duten langileen baldintzetan ere bilakaera negatiboa izan da. Horrela, 2015. urtean beren laneko eskubideak babesten dituen indarreko hitzarmen bat duten soldatapeko langileen kopuruak behera egin du, laneko prekarietatea areagotu egin da eta egiazko soldatak murriztu egin dira, bereziki zerbitzuen sektorean.

Testuinguru horretan, aztertutako hitzarmenetan erreparatuz 2008-2015 bitartean Gipuzkoan hirugarren adineko egoitzen sektorean soldatapeko langileen lan-baldintzak hobetu izana bereziki adierazgarria da.



## 2. Adin nagusiko pertsonentzako egoitzen hitzarmena

### **Soldata-igoera esanguratsua Gipuzkoako adin nagusiko pertsonentzako egoitzen sektorean**

Gipuzkoako adin nagusiko pertsonentzako egoitzen sektoreko hitzarmenean erreferentziazko soldatak modu adierazgarrian igo dira 2008-2015 bitartean, Gipuzkoako KPI indizetik gora. Horrek horiekin lotutako sektoreko langileen erosahalmena eta egiazko soldata areagotzea ekarri du.

Gipuzkoako adin nagusiko pertsonentzako egoitzen sektorean lan egiten duten langileen kasuan lan-baldintzak pixkanaka eta etenik gabe hobetu dira:

- 2008-2012 bitartean urtean batez beste % 3,7 igoz kategoria profesional guztietan urte horretara arte indarrean zegoen hitzarmenaren bidez.
- 2012-2015 bitartean urtean beste % 1,7 igoz **ekitaldi horietarako hitzarmen-proposamena** onartu duten enpresetan,

**Soldatari dagokion bilakaera positibo horrek aztertutako lau kategoriatan soldata-maila eta egiazko soldata areagotzea ekarri du. Hala, egiazko soldata horrek 2008-2015 bitarteko epealdirako aztertutako gainerako hitzarmenetan hautemandako mailak gainditzen ditu nabarmen eta % 20,7ko igoera metatuan kokatzen da, hots, urtean % 3 inguruko igoera batez beste, epealdi horretarako Gipuzkoako KPI indizearen oso gainetik.**

Horrela, bilakaera Gipuzkoan aplikagarri diren beste hitzarmen batzuekin alderatuta aztertuz, egoitzen sektorean lan egiten duten langileentzat egoera bereziki mesedegarria dela ondoriozta daiteke. Hala, soilik Jose Matia Fundazioaren hitzarmenaren (% +13,1 batez beste lau kategoriatan) eta Bizkaiko sektoreko hitzarmenaren kasuan (% +15,8) ikusten dira epealdi horretan nolabaiteko garrantzia duten igoera-tasak.





Gainerako hitzarmenetan (hala sektoreko publikokoetan -Osakidetza edo Udalhitz- nola Gipuzkoan presentzia handia izateagatik erreferentziakotzat jo daitezkeen hitzarmen pribatu garrantzitsuetan) izan diren soldata-igoerak askoz ere apalagoak izan dira eta, zenbait kasutan, KPI indizearen hazkundetik behera. Horrenbestez, sektore horietako langileek erosahalmena galdu dute.

***Modu zehatzagoan, Gipuzkoan egoitzen sektoreak lurralde horretako hirugarren mailako sektoreko hitzarmenekin alderatuz azaltzen duen egoera azpimarra daiteke bereziki, nahiz eta aztertutako kategoriaren arabera badiren aldeak:***

- Aztertutako hitzarmenean goi teknikariaren ordainsariak (2.289 euro) modu nabarian gainditzen du (% +24,7) Bizkaiko hirugarren adineko hitzarmenari dagokion soldata, eta baita, are alde handiago batekin, hirugarren mailako beste hitzarmen batzuetan ezarritakoa, merkataritzarena kasu (hartako soldata-maila bikoiztuz). Haatik, sektore honetako soldata apalagoa da Matia (2.582 euro), Osakidetza (2.470 euro) eta Metalaren (2.562 euro) hitzarmenetan agertzen den ordainsaria aintzat hartuz.
- Erdi-mailako teknikariaren kategorian, adin nagusiko pertsonentzako egoitzen sektoreko soldata-baldintzetan egoera hobea dela ikus daiteke. Kasu honetan, soldata-mailak (2.155 euro), Bizkaiko hitzarmenean ezarritakoa (1.671 euro) eta Merkataritzakoa nabarmen gainditzeaz gain, Matia Fundazioarena (2.016 euro) eta, are, Metalarena (2.084 euro) ere gainditzen ditu. Osakidetzako hitzarmenak erakusten du soilik ordainsari handiagoa.
- Sektoreko gerontologiako laguntzaile edo zaintzailearen kategoriari dagokion ordainsaria (1.454 euro) askoz ere handiagoa da Bizkaiko hirugarren adineko egoitzen hitzarmeneko baina (+155 euro), eta Matia Fundazioarentzat ezarritakoaren oso antzekoa (1.462 euro). Hala ere, soldata-maila hori apalagoa da Osakidetzako hitzarmenarekin alderatuz (-249 euro) Udalhitz hitzarmena erreferentzia modura hartuta (-254 euro).
- Azkenik, mendeko langilearen kategoriari dagokion ordainsariak (1.298 euro) ere Bizkaiko hirugarren adineko hitzarmenean ezarritakoa gainditzen du (+70 euro), eta Matia Fundazioarentzat ezarritako hitzarmenean adierazten denaren oso antzekoa da (+2 euro). Gainera, merkataritza sektoreko soldata-maila oso modu nabarian gainditzen du (+482 euro).



***Epealdi honetan sektorean soldataz aparteko baldintzak hobetuz eta indartuz joan dira. Aitzitik, beste hitzarmen batzuetan atzera egin da nolabait (zenbait kasutan babes-sistema osagarriak kenduta, lanaldia areagotuta, aparteko orduak kenduta), horrenbestez:***

- Nabarmentzekoa da sektoreak zenbait alderditan erakusten duen egoera bereziki mesedegarria, esate baterako, lanaldiari dagokionez (urtean 1.592 ordu). Horri dagokionez, sektorean lan egiten dutenen urteko lanaldia Herri Administrazioiko funtzionario eta langileek dutenarekin aldera daiteke soilik. Lanaldi hau bereziki murrizta da Lan Harremanen Kontseiluaren Estatistikekin alderatzen bada, izan ere, estatistika horretan urtean 1.701 ordutan finkatzen da 2014. urtean Gipuzkoan indarrean ziren hitzarmenetan adostutako lanaldia.
- Hori bereziki garrantzitsua da lan egindako ordu bakoitzeko soldata-baldintzak alderatzean, Bizkaiko egoitzen sektoreko orduko soldatarekin alderatuz egoera hobe baina argi eta garbi (% 12 eta % 42 gehiago kategoriaren arabera), eta baita beste sektore batzuekin alderatuz ere, esate baterako, merkataritzarekin, Metalaren antzeko orduko soldata-maila azaltzen duelarik kategoriaz guztietan.
- Aitzitik, gaueko lanaren plusa eta jaiegunetan lan egitearen plusa sektorean oraindik Gipuzkoako beste erakunde batzuenak baino apalagoak dira. Gainera, ez dago baimen egunik hartzeko aukera, eta beste hitzarmen batzuetan bada aukera hori, esate baterako, Udalhitz hitzarmenean edo Matia Fundazioaren hitzarmenean.

